



Munduko Hizkuntza  
Ondarearen  
UNESCO Katedra  
Cátedra UNESCO  
de Patrimonio Lingüístico  
Mundial

# [ 2022. urteko JARDUERA MEMORIA ]

# AURKIBIDEA

1. Aurkezpena
2. Harremanak erakundeekin
3. 2022an bideratutako proiektu eta ekimenak
4. Katedrak antolatutako ikastaro eta jardunaldiak
5. Katedrakideek emandako ikastaroak
6. Katedrakideen hitzaldiak eta kongresuetan aurkeztutako komunikazioak
7. Katedrako bestelako jarduera batzuk
8. Katedraren presentzia hedabideetan
9. Katedrakideek jasotako sariak eta aitortzak
10. Katedrakideen argitalpenak
  - 10.1. Liburuak
  - 10.2. Kapituluak liburuetan
  - 10.3. Artikuluak

**MHO UNESCO Katedra / Cátedra UNESCO PLM / UNESCO Chair WLH  
Mikaela Portilla Ikergunea - UPV/EHU, Justo Vélez de Elorriaga 1.  
01006 Vitoria-Gasteiz**

<http://www.ehu.es/mho-unesco-katedra>

# 1. AURKEZPENA

---

Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra (MHOUK) Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) eta UNESCOren artean sinatutako hitzarmenaren emaitza da. Hitzarmena 2006 sinatu eta Katedrak 2007an eman zion hasiera bere ibilbideari Itziar Idiazabalen ardurapean. Katedraren sorrera UNESCO Etxeari zor zaio; erakunde horren gidaritzapean, UNESCO Parisek eskatuta, munduko hizkuntzei buruzko txostena (Martí et al., 2006<sup>1</sup>) burutu zen 1996 eta 2005 bitartean, ondoren hainbat hizkuntzatan itzuli zena. 1998an Eusko Jaurlaritzaren eta UNESCOren artean sinatutako memorandumari esker gauzatu ahal izan zen proiektu hori. Harrezkero, UPV/EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrak eta UNESCO Etxeak elkarlanean jarraitu izan dute, bereziki garapenerako proiektuetan.

2017an UPV/EHUren eta UNESCOren arteko hitzarmena berriztatu zen beste lau urtez eta Katedraren zeregina Hezkuntzaren alorrera ere atxikitzea onartu zuen UNESCOk. Horri esker, Katedrak jarraipena eman ahal izan dio munduko hizkuntzen egoerari buruzko azterketei, eta bereziki, modu monografikoagoan, galtzeko arriskuan dauden hizkuntzen inguruan egiten den lanari eta garapenerako hizkuntza lankidetzari. Horretaz gain, Katedraren borondatea da hezkuntza baloreak eta prestakuntza inklusibo eta justua sustatzea eta etengabeko ikaskuntza bultzatzea, 2030eko Garapen Iraunkorrerako 4. helburuari ekarpena egiteko, baina baita hizkuntzaren zeharkakotasuna eta garrantzia aldarrikatzeko Garapen Iraunkorrerako Helburu (GIH) guztietan ere.

Katedraren helburua da, beraz, bertako eta kanpoko hizkuntza ondarea aztertu, deskribatu eta ezagutaraztea eta munduko hizkuntzen ondarea ezagutzera ematea. Horretarako, ikerketa, formazioa, informazioa eta dokumentazio-lanak garatzen ditu, betiere, arreta berezia eskainita hizkuntza gutxituei, Euskal Herriko eta euskararen biziberritzearen ikuspegiak aintzat hartuta.

Katedra, gaur egun, arduradunak, teknikari batek, kide aktiboek, Batzorde Tekniko Iraunkorrek eta Aholku Batzordeak osatzen dute.

## Arduraduna

- Ines M<sup>a</sup> Garcia Azkoaga, Euskal Filologian Doktorea eta eleaniztasunean eta hizkuntzen irakaskuntzan aditua. 2018an hartu zuen Katedraren ardura UPV/EHUko errektoreak izendatuta.

## Teknikari-ikertzailea

- Inari Plazaola, Itzulpengintza eta Interpretazioan graduatua. Katedran lanean hasitako kontratupeko ikertzailea.
- Lamia Filali-Mouncef Lazkano, Itzulpengintza eta Interpretazioan graduatua. 2022ko azaroan Katedran lanean hasitako kontratupeko ikertzailea.

---

<sup>1</sup> Martí Ambel, Félix; Ortega Etcheberry, Paul; Idiazabal Gorrotxategi, Itziar; Barreña Agirrebeitia, Andoni; Juaristi Larrinaga, Patxi; Junyent Figueras, Carme; Uranga Arakistain, Belén; Amorrortu Gómez, Estibaliz (2006). *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzkotxostena*, Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea.

### UPV/EHUko katedrakide aktiboak

- Ibon Manterola (UPV/EHU), Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketetan doktorea, ELEBILAB taldeko ikertzailea eta hizkuntzen jabekuntzan eta hizkuntzen didaktikan aditua.
- Leire Diaz de Gereñu Lasaga (UPV/EHU), Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketetan doktorea, ELEBILAB taldeko ikertzailea eta hizkuntzen didaktikan aditua.

### Batzorde Tekniko Iraunkorra

- Itziar Idiazabal (UPV/EHU) doktorea, ohorezko irakaslea-ikertzailea, eta UPV/EHUko ELEBILAB taldeko ikertzaile kolaboratzailea..
- Andoni Barreña (Garabide Elkartea), Euskal Filologian doktorea eta hizkuntza aniztasunean aditua.
- Margareta Almgren, Hizkuntzalaritzan doktorea eta UPV/EHUko ELEBILAB taldeko ikertzaile kolaboratzailea.
- Mikel Mendizabal (Garabide Elkartea), irakaslea eta hizkuntza eta biologia-aniztasunean ikertzailea.
- Ane Ortega Etcheverry (Begoñako Andra Mari Irakasle Eskola), Hizkuntzalaritzan doktorea, besteak beste, ELEBILAB taldeko ikertzailea eta hizkuntzen didaktikan aditua.
- Beñat Garaio (Soziolinguistika Klusterra), Hizkuntzalaritzan doktorea eta ELEBILAB taldeko ikertzaile kolaboratzailea. Euskararen Aholku Batzordeko “Euskara Sustatzeko Ekintza Plana” (ESEP) berritzeko aditu-taldeko kidea (2022tik). Arabako Foru Aldundiak sortutako Garapen Iraunkorraren aldeko Arabako Aliantzako kidea 2022tik.
- Jone Goirigolzarri (Deustuko Unibertsitatea), Soziolinguistikan doktorea, soziolinguistika irakaslea eta soziolinguistika eta hizkuntzen didaktikan aditua.
- Arkaitz Zarraga (Basauriko Euskaltegia), Euskal Filologian lizentziatua eta euskararen didaktikan aditua.
- Maite Garcia Ruiz (Euskal Herriko Unibertsitatea), Hizkuntza eta Filologia programako doktoregaia.

### Bekaduna

- Maria Montroy Ferré, Margarita Salas doktoretza osteko programako bekaduna.

### Aholku Batzordea

- Xabier Aierdi (UPV/EHU), Soziologia katedraduna.
- Maria Jose Azurmendi (UPV/EHU), Soziolinguistika katedraduna.
- Maitena Etxebarria (UPV/EHU), Hizkuntzalaritza Orokorreko katedraduna.
- Patxi Goenaga (UPV/EHU), Euskal Filologia katedraduna.
- Nieves Fernandez Vicente, UNESCO Etxearen lehendakaria.
- Arantza Acha, UNESCO Etxearen zuzendaria.

- Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra), Euskal Filologian Lizentziatua eta hizkuntza aniztasunean aditua.

## 2. HARREMANAK ERAKUNDEEKIN

Sortu zenetik, Katedra etengabe dihardu elkarlanean izaera ezberdinetako erakunderekin. Lankidetzak horiek funtsezkoak dira proiektuak bideratzeko eta, besteak beste, babes ekonomikoa bermatzeko.

Gure proiektuei babes ekonomikoa eman izan dietenen artean daude Azkue Fundazioa eta Berrizko Udala, baina azken urtean diru-laguntza horiek galdu ditugunez, hauek dira egun babesa ematen diguten erakundeak:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (HPS);
- Elorrioko Udala: 2019 berriztatu zen beste 4 urtez udal honekin dugun hitzarmena, lehenengo aldiz 2014an sinatu zena;
- Beste erakunde batzuekiko harremana eta lankidetzak ere ezinbestekoa da proiektuak eta egitasmoak aurrera eramateko. Aipatzekoak dira hurrengo hauek:
- UNESCO Etxea, 1991an sortu zen, eta gure Katedrari babes instituzionala ematen dio sortu zenetik (2007). UNESCO Etxearen asmoa UNESCO erakundearen printzipioak, programak eta jarduerak-ildoak euskal esparruan zabaltzea da. Egun 132 bazkide ditu, erakundearen gizarte-oinarria osatzen dutenak.
- Euskal Herriko UNESCO Sarea (EHUS), bere izenak dioen bezala, bere baitan biltzen dituena Euskal Herrian dauden UNESCO izendapena daramaten askotariko erakundeak (ikastetxeak, fundazioak, katedrak...)
- Garabide Elkartea, gobernuz kanpoko erakundea 2013tik daramagu kolaborazioan Garabiderekin hizkuntza kooperazio proiektutan. Cauca, Kolonbiako hizkuntza kooperazio proiektuarekin jarraitzen dugu gaur egun haiekin batera.
- Soziolinguistika Klusterra.
- Euskal Gorrak (Pertsona Gorren Elkarten Euskal Federazioa), EAEko Gor helduen Elkarte guztien koordinatzaile eta ordezkari moduan jokatzeko du eta euskal lurralde osoan pertsona gorrek oinarritzko zerbitzuak jaso ditzaten bermatzera bideanlan egiten du. 2020an sinatu da kolaborazio hitzarmena.
- Asociación Africanista Manuel Iradier, gobernuz kanpoko erakundea. 2014urtean sinatu zen kolaborazio hitzarmena.
- Oihaneder Euskararen Etxea, Gasteizen kokatuta dagoena eta euskararen zein hizkuntzaren aniztasunaren berri zabaltzeko lana egin duena 2022ra arte.
- UPV/EHUko UNESCO Katedrak:
  - Komunikazioaren eta Hezkuntza Balioen UNESCO Katedra
  - Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruz UNESCO Katedra

- Kultur Paisaiak eta Ondarearen UNESCO Katedra
- Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra
- Ayuda en Acción, gobernuz kanpoko erakundea: Erakunde honekiko harremanak 2018an hasi ziren Mexikoko tseltal komunitateak haiekin harremanetan jarri zirenean tseltal hizkuntza biziberritzeko.
- Cooperación Bierzo Sur, gobernuz kanpoko erakundea: 2022an hasi gara haiekin kolaborazioan, Santo Tomé eta Príncipeko forro hizkuntzaren biziberritzean lankidetzaz bideratzeko.

Horretaz gain Katedrak harreman estua du Genevako Unibertsitateko hizkuntzen didaktikako adituekin eta Gales, Irlanda eta Frantziako hainbat aditurekin, hezkuntza eleaniztunaren eta hizkuntza gutxituen inguruan dihardutenak.

### 3. 2022AN BIDERATUTAKO PROIEKTU ETA EKIMENAK

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrak (MHOUK) honako proiektuak garatu ditu 2022. urtean zehar:

1) **Erakusketa Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna (otsailak 21) oroitzeko.**

“Hizkuntza Indigenak Ama Lurra Zaintzen” erakusketa ekarri zen Arabako Campuseko Pabiloira otsailaren 21-24 bitartean. Otsailaren 21ean bisita gidatuak egin zituen Mikel Mendizabal Katedrakideak unibertsitateko ikasle, irakasle eta bestelako bisitariarentzat. Guztira 102 lagun hurbildu ziren erakusketara.

2) **Hizkuntza-lankidetzak: Garabide Elkarteak eta Bierzo Sur Gobernuak Kanpoko Erakundeekin.**

- **Garabide:**

Landa-lana Caucan: Aipagarria da gizartean egoera zaila topatu dela aurten, horren erakusgarri nagusia Miller Correa buruzagi indigenaren erailketa izan delarik. Gertuko pertsona zen hizkuntza-lankidetzan aritzen diren katedrakideentzat, Nasa Yuwearen biziberritze hastapeneko lanetan ibili baitzen haiekin batera<sup>2</sup>. 2022an zehar landa-lanak bost lan-ildo izan ditu:

Urte osoko plana. Garabide Gobernuak Kanpoko Erakundearekin batera, Nasa komunitateko 10-15 lagunez osatutako talde batekin aritu dira lanean bertara joan diren Katedrakideak, besteak beste, prestakuntza emateko eta lehen hezkuntzako ikas-materialak sortzeko. Urtean zehar ere egin izan dira jarraipen-bilerak online.

Helduentzako materialak eta metodologiak (A1 eta A2 mailak). 2022an materiala ebaluatu da. Metodologia probatzea eta bertako irakasleak egonkortzea da hurrengo urratsa.

Alfabetizatutako taldeekin ere lanean aritu gara Kolonbian, eta horietatik tailerraren dinamizazioaren ardura hartuko luketen irakasleak lortzea izan da helburua.

Itzulpen lanak, paisaia linguistikoa, kartografia, toponimia... nasa-yuwez jartzeko lana egin da.

Komunikazioaren eta materialen sorkuntza alorrean ere aurrerapausoak ematen ari dira Caucako Nasa-yuwetarrek. Nasa yuweraz egiten den irrati indigenak aurrera jarraitzen du, eta lan horrek beste lan ildoak elikatzeko balio du.

- **Santo Tome eta Printzipeak:**

Hitzarmena “Cooperación Bierzo Sur” gobernuak kanpoko erakundearekin: Maria Montroy katedrakidearen bidez “Cooperación Bierzo Sur” GKEarekin jarri ginen harremanetan. Ponferradako GKE bat dira, eta Santo Tomé eta Príncipe (Afrikan) garatzen dituzte proiektuak. *Forro* kriolloa da bertan hitz egiten den hizkuntza gutxitu bat, pixkanaka desagertzen ari dena, portugesa nagusi izanik gazteenei ez baitzaie transmititzen. Proiektuaren helburua, berez, ez da

<sup>2</sup> Hona hemen Garabidek gertatutakoaren harira argitaratu zuen albistea: <https://www.garabide.eus/euskara/albistek/miller-correa-buruzagi-indigena-kolonbiarraren-hilketa>

hizkuntzaren biziberritzea, baizik eta hizkuntza gutxitua (ia nagusienek bakarrik erabiltzen dutena) erabiltzea belaunaldien arteko gertutasuna lortzeko eta aldi berean komunitateko nagusien ongizatea bultzatzeko, izan ere forroko hiztun nagusi horiek bazterkeria jasaten baitute euren komunitatean, neurri batean, ez daudelako portugesez alfabetatuta.

Udan egindako landa-lanean tailerrak egin ziren forro hizkuntzaren erabileraren bidez komunitateko nagusiak eta gazteak elkarrengana hurbiltzeko eta forroera balioan jartzeko. Bi tailer antolatu ziren: Antzerki tailerra eta Animazio digitalaren (*Una Mà de Contes* sortatik hartutakoa, ekoizle eta zuzendariaren baimenarekin -TV3-) bikoizketa forroz. Azken horren emaitza ikus daiteke esteka honetan: <https://www.ccma.cat/tv3/sx3/el-sol-i-la-lluna-21-llengua-forro/video/6179064/>

Animazioaren bikoizketaren esperientzia positibotzat hartuenez bi aldeetatik, hitzarmen bat sinatzeko prestaketan aritu gara 2022 urte amaieran, *Una Mà de Contes* programarako beste animazio batzuk sortzeko Katedraren lankidetzarekin.

### 3) Unesco Etxea (orain UN Etxea) eta BBK Kuna.

2022an zehar hizkuntzen gaia aintzat hartu duela eta garrantzizko ildotzat duela dirudi, gure Katedraren iradokizun eta ekarpenei jarraituta Agendaren helburuak gehitu diote hizkuntza eta kultura aniztasuna agendaren lanketa BBK Kunan egiten denean. Halaber, kontuan hartuta Nazio Batuek 2022-2032a Hizkuntza Indigenen Hamarkada izendatu dutela, langile bat dute Parisen, besteak beste, gaiaren jarraipena egiteko.

UN Etxeak sustatutako ekimen hauetan hartu du parte Katedrak:

- **BBK Kuna:** EHUSEk egindako gonbidapenari heldu eta Katedra BBK Kuna proiektuan partaide moduan ari da. BBK Kuna Garapen Jasangarrirako Helburuak sustatzeko espazio bat da.
- **Factoría 4.7 eta RCE (Regional Centre of Expertise) proiektuak:** Unesco Etxeak 2021 urteko amaieran aurkeztu zuen proiektua eta, besteak beste, Unesco Katedrei bertan parte hartzeko gonbita egin zigun. Proiektu multisektorial bat da, 2030 Agendaren garapen eraginkorragoa sustatzeko eta hezkuntzaren bitartez indartzeko, nazioarteko sareak eraikitzeko, eta Administrazio ezberdinekin izan beharreko elkarrizketak errazago bideratzeko. Hainbat motatako eragileak hartzen ditu barne: erakunde eta era guztietako enpresak, Gobernu Kanpoko Erakundeak, Unesco Katedrak, etab. RCEak Nazio Batuetako Unibertsitatearen menpeko erakundeak dira, eta Euskal Herriatik gertuen dauden bi RCEak Galiziakoa eta Bordelekoa dira.

Proiektua abiaraztea: bilerak, ekarpenak, zuzenketak eta onarpena.

Proiekturako eskaria egin zen 2022ko maiatzean. Unesco Etxeak arduradun bat jarri zuen RCE proiektua martxan jartzeko. Hainbat bilera egin ondoren proiektua aurkeztu zen eta ebaluatzaileen iruzkinak jaso ziren, baita zuzendutako bertsioa aurkeztu ere, azkenean baieztatu erabakia jaso arte. 40 erakunde ditu atxikita (eskolak, enpresak, Gobernu Kanpoko Erakundeak, Unesco Katedrak...).

Proiektuaren barruan baliabide berri bat ere sortu da: “Faktoria 4.7” plataforma. Faktoria 4.7 webgune bat da (<https://www.factoria-4-7.org/>), Garapen



Jasangarrirako Hezkuntzaren (GJH) ezagutza kudeatzeko, eta bertan material ugari dago bilduta, garapen jasangarriarekin zerikusia duten nazioarteko helburuak sozializatzeko eta modu didaktikoan lantzeko. Katedraren proposamena bere eginda, plataformak 18. Helburua ere dauka jasota, hizkuntza- eta kultura-aniztasuna planetaren garapen jasangarrirako ezinbestekoa dela agerian jarrita.

2022ko abenduaren 15ean aurkeztu ziren Factoría 4.7 plataforma eta Basque Country-Navarre - GJH Regional Centre of Expertise, Deustuko Unibertsitatean (Bilbon). Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra RCE-Regional Centre of Expertise horren kide gisa ekitaldian parte hartu zuen. RCE Basque Country-Navarre Euskal Herriko garapen jasangarrirako ikaskuntza errazteko lankidetzan du helburu, UNESCOren #EDSpara2030 Ekintza Globaleko Programaren barruan.

- **MONDIALCULT 2022 Kongresua.** *Kultura- eta hizkuntza-eskubideak tokian-tokian: aukerak eta erronkak Euskadi 2030* izeneko jardunaldia antolatu zuen Unesco Etxeak MONDIALCULT 2022 kongresuko saio paraleloetan ekarpena egiteko asmoz. Ekitaldia Bilboarteren egoitzan izan zen irailaren 22an. Horren oinarrian UNESCOren dokumentu bat dago: DECLARACIÓN FINAL de la Conferencia Mundial de la UNESCO sobre las Políticas Culturales y el Desarrollo Sostenible (MONDIACULT 2022), adoptada por 150 estados y que declara que la cultura es un bien público mundial y marca una hoja de ruta común para reforzar las políticas públicas en este ámbito.

#### 4) Hizkuntza Indigenen Nazioarteko Hamarkadaren aurkezpen ofiziala.

2022ko abenduaren 13an aurkeztu zen Hizkuntza Indigenen 2022-2032 Nazioarteko Hamarkada, UNESCOren Parisko egoitzan antolatutako ekitaldian, eta Katedrak horren berri eman du eta izena emateko prozesuan hasi da 2022 amaieran, hamarkadan zehar ekarpena egiteko asmoz.

#### 5) Elkarlana Galestarrekin.

Aberystwyth-eko Unibertsitateko ikertalde batekin batera bilerak egin dira eta artikulu bateratu bat idazten jardun dute katedrako kide batzuk. Artikuluan, gaelikoaren eta euskararen kasuak hartu, eta proiektu instituzionaletan hizkuntzaren biziberritzea eta garapen iraunkorraren arteko lotura aztertzeke. 2023ko ekainean Galesen izango den “XIX International Conference on Minority Languages (ICML)” kongresurako sinposioa proposatu da elkarrekin.

#### 6) Erakusketak

- **“17+1 helburu mundua eraldatzeko” erakusketa** urtean zehar hainbat lekutan egon da. Ortuellako San Felix ikastolan (ekaineko lehenengo astean), Gasteizko Villa Suso jauregian (ekainaren 21 eta 22 bitartean), hain zuzen, Kultur Paisaiak eta Ondarearen Unesco Katedrak antolatutako *Hiri-paisaia historikoaren 2030 erronkak* kurtsoan, Donostiako campusean (azaroaren 7tik abenduaren 12ra) eta Getxoko Gobela Kiroldegian (abenduaren 12tik 30era).
- **“Hizkuntza Indigenak Ama Lurra Zaintzen”**: Erakusketa hainbat lekutan egon da 2022an zehar: Gasteizen otsailean, Tolosan urrian eta, azkenik, Iraunkortasun Katedrarekin izandako elkarlanari esker, Urdaibaiko Ekoetxean azaro eta abenduan. Galiziako Unesco Ikastetxeekin ere harremanetan izan

gara Euskal Herriko Unesco Sarearen bidez eta datorren urteko Salon do Libron galizieraz jartzeko gogoia adierazi zuten.

**7) Material didaktikoa hizkuntzei buruz:**

- Animazio digital berria prestatu da Hatxa Kuñ hizkuntza indigenan Garabide eta Katedraren artean: *Kolibriaren mitoa*.
- Hizkuntza Indigenak Ama Lurra Zaintzen liburuxka argitaratu da Nasa-yuwez.
- Hizkuntza Indigenak Ama Lurra Zaintzen liburuxkaren euskarazko bigarren argitalpenaren prestaketari ekin zaio, oraingoan kontakizunak ahoz entzuteko aukerarekin. Halaber izen bereko gida didaktiko bat prestatu da eta argitaratzeko bidean da erakusketaren edukiak lantzeko.

**8) Umeentzako literatura liburu eleanitzak**

Galtzagorriekin batera umeentzako edo gazteentzako literatura-liburu elebidun/eleanitzak sortzeko ahalegina egiteko asmoa adierazi dugu. Horretarako, besteak beste, liburuak eta hizkuntzak aukeratu, balizko bidelagun gehiago bilatu, eta dirulaguntza bilatzeko modua aztertu da. Momentuz ez da lortu.

## 4. KATEDRAK ANTOLATUTAKO JENDAURREKO EKITALDIAK

---

### **Liburu-aurrezpena: Hizkuntza-aniztasuna, hizkuntza gutxituak eta garapen jasangarria**

2022an liburuaren euskarazko bertsioa argitaratu da paperean Euskara Zerbitzuaren eskutik, eta azaroaren 28an aurrezpena antolatu genuen Euskararen Egunaren harira. Jatorrizko liburua, *Linguistic diversity, minority languages and sustainable development*, Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO katedraren ekimenez argitaratu zen 2019an, artikuluko bakoitzaren egileak aukeratutako hizkuntza errespetatuz, eta 2022an euskarazko argitalpena iritsi da. Azaroaren 28an egin zen aurrezpena, besteak beste, lagun hauek eskituak: liburuaren argitaratzailea (I. Idiazabal), itzulpenaren arduraduna J-M. Makazaga UPV/EHUko Euskara Zerbitzuko arduraduna), José Antonio Flores Farfán, Mexikoko Consejo Nacional de Ciencia y Tecnologíako ikertzaile eta liburuko kapitulu baten egilea.

## 5. KATEDRAKIDEEK EMANDAKO IKASTAROAK

---

Ane Ortega Etcheverry:

- “Ikastetxeko hizkuntzak bateratzeko irakas edukien maparen diseinua”. Ikastaro hau hiru zentrotan eman zen, 10 ordu presentzial ikastetxe bakoitzean: Mimetiz HLHI ikatetxean / Kareaga Goikoa HLHI (Basauri) / Gabriel Aresti BHI (Txurdinaga).

Arkaitz Zarraga:

- Caucan egiten den hizkuntza-lankidetzaren lanaren inguruko hiru hitzaldi Eguzkibegi Ikastolan, Miguel de Unamuno Institutuan eta Zaballako espetxean
- "Formación básica en el manejo de la metodología Nifx fxi dx para la enseñanza de la lengua Nasa Yuwe para adultos" Caucan bertan (60 ordu)
- UEUko Glotodidaktika sailak antolatutako Glotodidaktika Topaketen koordinatzailea: *Helduen Euskalduntze Alfabetatzea (HEA): sustraiak eta adarrak. (Glotodidaktika VII. Topaketa)*

Beñat Garaio:

- “Erabileraren beharra: hizkuntzak erabiltzeko irizpideak eskola zein gela barneko dinamikan eta harremanetan” mahai-ingurua. *Eskolan euskara ardatz: ertzak aztertzen* EHUko udako ikastaroa, Donostia: 2022/07/06.
- “Gaitasuna eta erabilera helburu, antolaera eraginkorrenaren bila” mahai-ingurua. *Eskolan euskara ardatz: ertzak aztertzen* EHUko udako ikastaroa, Donostia: 2022/07/07.

Ibon Manterola:

- “Hizkuntzak ikasteko jarrera eta motibazioak”. Atzerriko unibertsitateetan eta goi-mailako zentroetan euskara irakasteko prestakuntza ikastaroa. Etxepare Euskal Institutua.

## 6.KATEDRAKIDEEN HITZALDIAK ETA KONGRESUETAN AURKEZTUTAKO KOMUNIKAZIOAK

---

- Aeby Daghé, S., Almgren, M., Pogranova, S., *Des résultats de recherche en didactique du français qui s'exportent. Points de vue de la didactique des langues sur les genres de texte*, (komunikazioa), 15<sup>e</sup> colloque de l'AIRDF - Louvain-la-Neuve, 23-25 mai 2022.
- Diaz de Gereñu, L., "Ahoz gora irakurketa: praktika eta ebaluazioa", *Irakasleen formakuntza*, Eusko Jaurlaritz / Gobierno Vasco Berritzegunea, Gasteiz [Araba]: 2022.
- Diaz de Gereñu, L., "Tailerra: Projectes Lingüistics de Centre", *Congrès - diàlegs internacionals Sobre ensenyament plurilingüe*, Université de Genève, Generalitat Valenciana, Universitat Jaume I, Morella: 2022.30.09|01.10.
- Diaz de Gereñu, L., Manterola, I. & Almgren, M. Silenciar o no silenciar el sujeto: esa es la cuestión (pragmática). *AEAL 2022*. Universitat de Girona. Girona: 2022/09/06-09.
- Garaio, B. (2022). "Aniztasunean euskara biziberritzen duen D eredia aztergai", *Soziolinguistika Klusterraren barne mintegia*, Andoain: 2022/05/25.
- Garaio, B. (2022). "Els models educatius del País Basc i l'anàlisi d'escoles segregades", *Universitat de Vic-eko GLOSA ikerketa taldeak antolatutako hitzaldia*, Vic: 2022/05/19.
- Garaio, B. (2022). "Gasteizko bi eskola segregatuaren indargune eta lorpenak identifikatuz euskararen biziberritzean", *Euskal Soziolinguistikan bide berriak (EQUILING)*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2022/06/20.
- Garaio, B. (2022). "Situació sociolingüística del basc i les iniciatives per revitalitzar la llengua", *Universitat de Vic-eko GLOSA ikerketa taldeak antolatutako hitzaldia*, Vic: 2022/05/17.
- Garaio, B. (2022). Go!azen telesaileko aktoreei kontzientziario saioa Gipuzkoako Foru Aldundiak eta EITBk eskatuta. Donostia: 2022/06/22.
- García-Azkoaga, I. M., "Euskararen eta 2030 Agendaren arteko lotura" hitzaldia Elkargoak Euskaraz proiektuarentzat, Bizkaiko Haginlarien Elkargoan (Bilbon).
- García-Azkoaga, I. M., "Kultura- eta hizkuntza-eskubideak tokian-tokian: aukerak eta erronkak Euskadi 2030". Unesco Etxea Begirada bat unibertsitatetik, Bilbo: 2022.
- García-Azkoaga, I. M., Mahai-ingurua: Sociodidáctica de les llengües: fronteres i passatges entre les llengües en l'ensenyament, *Congrès - Diàlegs internacionals sobre ensenyament plurilingüe*, Generalitat Valenciana, et al. Morella: 2022.
- García-Azkoaga, I. M. & Idiazabal, I. "Las lenguas indígenas y minorizadas y los objetivos de desarrollo sostenible", *II Congreso Internacional de Revitalización de Lenguas Indígenas y Minorizadas*, Universitat de Girona. Girona: 2022.
- Idiazabal, I. & Manterola, I., "Cheminer et partager avec Joaquim Dolz-Mestre dans la recherche de l'enseignement bi-plurilingue", *Journée académique "FORMER À LA DIDACTIQUE DES LANGUES : CHEMINER AVEC JOAQUIM DOLZ*, Université de Genève, FPSE. Genève: 2022.
- Idiazabal, I. "Hizkuntza aniztasuna eta garapen jasangarria" mintegia, *Liburuaren aukezpena: Idiazabal, I. & Pérez-Caurel, M. (Ed.) (2022) "Hizkuntza aniztasuna,*

- hizkuntza gutxiak eta garapen jasangarria*". Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra & Letren Fakultatea, UPV/EHU. Gasteiz: 2022/11/28.
- Idiazabal, I., Hitzaldia Mahai inguruan: "Del ISD y su conexión con la enseñanza del francés primera lengua al bi-plurilingüismo (del País Vasco)", *Congrés - Diàlegs internacionals sobre ensenyament plurilingüe*. Generalitat Valenciana, et al. Morella: 2022.
- Idiazabal, I., Hitzaldia Mahai inguruan: "Paulo Freireren Kulturgintza/alfabetatze metodologia", *Helduen Euskalduntze Alfabetatzea (HEA): sustraiak eta adarrak. (Glotodidaktika VII. Topaketa)*. UEUE. Eibar: 2022.
- Ezeizabarrena, M.J., Almgren, M. & Garcia, I.. *The effect of language exposure in the vocabulary of bilinguals assessed with three short versions of Basque CDI: CDI-1, CDI-2 & CDI-3 (komunikazioa)*, The Eighth European Network Meeting on Communicative Development Inventories EUNM-CDI 2022. University of Zagreb, Dubrovnik, 2022ko maiatzak 15-17.
- Manterola, I. Recerques d'enginyeria didàctica. Enginyeria didàctica de segona generació i plurilingüisme. *Congrés - Diàlegs internacionals sobre ensenyament plurilingüe* Generalitat Valenciana. Morella: 2022/09/30-2022/10/01
- Manterola, I. The contribution of immersion education to the revitalization of Basque: some current challenges. *Lenguas regionales y minoritarias: Reflexiones, métodos y estrategias para su mantenimiento y revitalización*. Universitat Flensburg. Flensburg: 2022/05/12-14.
- Montroy M.& Garcia-Azkoaga, I. "Creencias y actitudes sobre la utilizaci3n del forro en un trabajo colaborativo entre j3venes y ancianos, *III Congr3s Internacional sobre Revitalizaci3n de Llengües Indígenes o Minoritzades (CIRLIM 2022)*, Universitat de Girona, Universitat de Perpinya, Smithsonian Center for Foklife & Cultural Heritage. 2022-09-13 a 16.
- Montroy M., "Usos, atitudes e crenças das línguas crioulas e dos seus falantes em Sao Tom3 e Príncipe. Uma abordagem desde o distrito de Lobata", *III CONGRESO INTERNACIONAL NODOS DEL CONOCIMIENTO. La academia frente a los retos de la humanidad. Innovaci3n, investigaci3n y transferencias ante el horizonte 2030*, Egregius, 18-11-2022.
- Ortega, A.. "Hizkuntzen bizi-indarrean eragiten duten mundu mailako joera nagusiak". *Euskal Soziolinguistika Jardunaldia 2022*. Bilbao, EHUKo Bizkaia Aretoa: 2022ko ekainaren 23.
- Ortega, A. "Hizkuntzen bizi-indarrean eragiten duten mundu mailako joera nagusiak". *Euskal Soziolinguistika Jardunaldia 2022*. Bilbo, 2022ko ekainaren 23.
- Ortega, A. "Garabidetik Caucan Nasa Yuwe hizkuntzaz izandako esperientzia". *Helduen Euskalduntze Alfabetatzea (HEA): sustraiak eta adarrak* UEUKo Uda Ikastaroa. Eibar, 2022ko ekainaren 29.
- Ortega, A. "Gazteen hizkuntza-ideologiak eta euskararen erabilera" mahai inguruko koordinatzailea. *Gazteen ahotsak: Hizkuntza-ideologiak eta kultur aniztasuna* EHUKo Uda Ikastaroa. Bilbao, Azkuna Zentroa: 2022ko ekainaren 09-10.

## 7. KATEDRAKO GRADUONDOKO JARDUERAK

Master eta doktorego programen antolaketa eta parte hartzea:

Masterraren edo doktorego-programaren izenburua	Katedrakide irakasle arduraduna	Erakunde antolatzailea	Orduak	Erakundea	Non eman den
Lisbon summer school in linguistics -PhD Programme-	Ines García Azkoaga	Universidade Nova de Lisboa eta CLUNL	15	Universidade Nova de Lisboa	Universidade Nova de Lisboa
Master Etudes Basques (M1): Ahozko hizkuntza	Ines García Azkoaga	U. Bordeaux-Montaigne.	1,5 ECTS		Baiona
Euskal Linguistika eta Filologia Masterra: Hizkuntzalaritza Aplikatuaren Oinarriak I: hizkuntza plangintza eta soziolinguistika.	Ibon Manterola	Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila. UPV/EHU	3 ECTS	UPV/EHU	Vitoria-Gasteiz, Letren Fakultatea.
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra: Hizkuntz ukipena	Ibon Manterola		3 ECTS	UPV/EHU	Vitoria-Gasteiz. Kirol eta Hezkuntza Fakultatea.
Master 2 Etudes basques: Soziolinguistika	Ibon Manterola	Université Bordeaux Montaigne	1,2 ECTS	UPV/EHU	Baiona, Letren Fakultatea.
<i>Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia / Hizkuntzalaritza Aplikatuaren Oinarriak II: Eleaniztasuna eta Irakaskuntza</i>	Ines García Azkoaga & Leire Diaz de Gereñu	Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila	3 ECTS	UPV/EHU	Gasteiz. Letren Fakultatea (EHU)
<i>Euskal Ikasketak MASTERRA</i> Irakasgaia: “Euskara ardatz duen hezkuntza eleaniztunerako oinarri didaktikoak”	Leire Diaz de Gereñu	Université Bordeaux-Montaigne	1,5 ECTS	UPV/EHU	Campus de l'UPPA, UFR pluridisciplinaire (Baiona)
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra: Irakasgaia: “Hizkuntzaren Bariazioa eta Barietateak”	Leire Diaz de Gereñu	Hezkuntza, filosofia eta antropologia fakultatea	3 ECTS	UPV/EHU	Kirol eta Hezkuntza Fakultatea (EHU)

## Doktorego tesiaren defentsa:

- Beñat Garaio Mendizabal: “Euskara eleaniztasunean irakasten duten eskolak aztergai- D ereduko Gasteizko bi eskolaren indarguneak identifikatzen” (UPV/EHU). **Zuzendariak:** Itziar Idiazabal eta Leire Diaz de Gereñuk (UPV/EHU).

## Unibertsitate sistemako Ikerketa-proiektuetan parte haratzea:

### Ortega, A.:

- Transformación sociolingüística en el contexto vasco: hablantes, prácticas y agencia / Sociolinguistic transformation processes in the Basque context: speakers, practices and agency” (Equiling-Basque) (Proyecto con financiación propia parte del proyecto coordinado “Conciencia lingüística crítica y agencia de los hablantes: investigación-acción para la igualdad sociolingüística (EquiLing) / Critical linguistic awareness and speakers’ agency: action-research for sociolinguistic equality (EquiLing), IP: Luisa Martín Rojo. Economía eta Lehiakortasun Ministerioa, Espainiako Gobernu. Erreferentzia: PID2019-105676RB-C42.

### Montroy, M.:

- Doktorego ondoko ikerketa-proiektua: “La transmisión lingüística intergeneracional y la traducción audiovisual como instrumentos de desarrollo” proiektua (jardunean). Balentziako Unibertsitatea eta MHOUK.

### García-Azkoaga, I.; Manerola, I.; Díaz de Gereñu, L.; Idiazabal, I.; Algrem, M.:

- “Hizkuntzaren Irakaskuntza, Jabekuntza, eta Erabilerak. Euskara, erdara, elebitasuna eta eleaniztasuna HIJE-3” (UPV/EHU). Eusko Jaurlaritza (IT1627-22). Ikerketa talde finkatuko kideak.

## Bestelako proiektuak:

### Beñat Garaio

- *Mugaldeetan mugalari: hiztun komunitatearen kohesioa prototipatzen.* Badalab. 2022/09/01-...
- *Eremu erdaldunetako arnaguneetako hizkuntza-dekalogoak diseinatzen.* Badalab eta Aiaraldea Ekintzen Faktoria. 2022/09/01-...
- HIGA Hizkuntza gutxituetako hiztun gazteen 4. Topaketa. Koordinatzailea. Erakunde bultzatzaileak: Gasteizko Udala, Hizkuntza Politika Sailburuordetza, Arabako Foru Aldundia eta EHU. 2022/2023.
- EuroDigitalLang twitter kanpainaren arduraduna Euskal Herrian. 2022ko ekaina. Helbidea: <https://twitter.com/EuroDigitalLang/status/1539526307679244289>



## 8. KATEDRAREN PRESENTZIA HEDABIDEETAN

Urtean zehar Katedrarekin lotutako gaien jardueren berri eman dugu hedabide ezberdinen bidez (ohikoak zein sare sozialekoak).

Noiz	Nor / Zer	Zer / Gaia	Non
2022/04/10	Arkaitz Zarraga	Euskal hezkuntza eraldatzeko txostena eta euskaltegiak	<a href="#">Argia</a>
2022/07/31	Arkaitz Zarraga	Euskara ezin da zaila izan	<a href="#">Argia</a>
2022/11/27	Arkaitz Zarraga	Ni ez nago harro	<a href="#">Argia</a>
2022/06/21	Beñat Garaio	Ibilbide pertsonal eta profesionalaren inguruan egindako elkarrizketa	<a href="#">Rising Voices</a> (4 hizkuntzatan eskuragarri)
2022/08/12	Beñat Garaio	Tesiaren inguruan egindako elkarrizketa. Kazetaria: Irati Urdalleta	<a href="#">Berria</a>
2022/10/22	Beñat Garaio	“Zein den izenen izana” erreportajearen elkarrizketatutako aditua. Kazetaria: Enekoitz Telleria.	<a href="#">Berria</a>
2022/11/25	Ines M. García-Azkoaga	Hizkuntza Indigenak Ama Lurra Zaintzen Erakusketari eskainitako erreportajea	Bizkaiko Hitza (Berria)
2022ko apirila	Ines M. García-Azkoaga	“17+1”: helburu bat baino gehiago euskal agendarako	Administrazioa Euskaraz, 116

**Agerpenak sare sozialetan:** 2022an egindako ekimen guztiak katedrako sare sozialetan hedatu dira: Twitter (@UNESCOmho), Facebook, (@HizkuntzenUnescoKatedra) eta katedrako webgunearen ([www.ehu.eus/mho-unesco-katedra](http://www.ehu.eus/mho-unesco-katedra)). Horrez gain, lankidetzako erakundeekin zein hizkuntza gutxituekin lotutako berriak emateko erabili ditugu sare sozial horiek.

Horrez gain, erakusketa ibiltariak egon diren lekuetan zegokion erakundeak horren berri eman du. Adibidez, Donostian egon zenean EHUk kalean panelak jarri zituen:



## 9. KATEDRAKIDEEK JASOTAKO SARIAK ETA AITORTZAK

---

Itziar Idiazabal:

- Nombramiento Socia de Honor de AEAL (Asociación para el Estudio de la Adquisición de la Lengua)

## 10. KATEDRAKIDEEEN ARGITALPENAK

---

### 10.1. LIBURUAK

Idiazabal, I. & Pérez-Cauarel, M. (Ed.) *Hizkuntza aniztasuna, hizkuntza gutxituak eta garapen jasangarria* Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco. Argitalpen Zerbitzua, 2022. (Idiazabal & Pérez-Cauarel (2019) liburuaren euskarazko itzulpena)

### 10.2. KAPITULUAK LIBURUETAN

Goirigolzarri, J. & Ortega, A. (2022). “Muda linguistikorako ahalak eta ezinak Bilboko ikasle euskaldunen ahotsean”. Non: Muguruza Aseginolaza, B. & Epelde Zendoia, I. (arg.) *Gazte eleaniztunak. Mintzalari eta mintzagai*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 127-148 orr. ISBN. 978-84-009860-841-0.

Kasares, P., Ortega, A. & Amorrortu, E. (2022). “Basque Intergenerational Transmission from a Language Socialization Perspective”. In: Hornsby, M. & McLeod, W. (eds.). *Transmitting minority languages: Complementary reversing language shift strategies*. Palgrave / Macmillan (Springer), 217-246. orr. ISBN 978-3-030-87909-9.

Nandi, A., Manterola, I., Reyna-Muniain, F. & Kasares, P. (2022). Effective family language policies and intergenerational transmission of minority languages. Parental Language Governance in Indigenous and Diasporic Contexts. In M. Hornsby & W. McLeod (Eds.), *Transmitting Minority Languages: Complementary Reversing Language Shift Strategies*. Cham (Suisse): Palgrave (Palgrave Studies in Minority Languages and Communities). [https://doi.org/10.1007/978-3-030-87910-5\\_12](https://doi.org/10.1007/978-3-030-87910-5_12)

Ortega, A. & Manterola, I. (2022). “40 años de revitalización del euskera: investigación y cultura lingüística”. In Eggert, E. & Benjamin, P. (ed.). *Kultur(en) der regionalen Mehrsprachigkeit/Culture(s) du plurilinguisme régional/Cultura(s) del plurilingüismo regional*. Peter Lang. 267-307 orr. ISBN.: 978-3631884218.

### 10.3. ARTIKULUAK ALDIZKARIETAN

Diaz de Gereñu, L. & García-Azkoaga, I.M (2022). "L'art du conte: la répétition de la dénomination du personnage dans la construction textuelle". In Copy, C., Raluca, N. & Bédouret, S. (eds.) *Lexique et frontières de genres. Presses Universitaires des Pays du Pau et de l'Adour*.

García-Azkoaga, I.M. (2022). Competencias comunicativas orales en los manuales escolares de las materias no lingüísticas. *Veredas*, Número especial: *O lugar da oralidade em sala de aula: prática de ensino escola à universidade*, vol.26, nº1º.,

1-25. <https://periodicos.ufjf.br/index.php/veredas/issue/current>

Montroy. M. “Multilingüismo en Santo Tomé y Príncipe: un acercamiento desde la subtitulación”, *Sustainable Multilingualism*, <https://doi.org/10.2478/sm-2022-0012>.

Munarriz-Ibarrola, A., Diaz de Gereñu, L., Manterola, I. (2022). La escritura de la reseña científica y su enseñanza en la universidad: análisis de las capacidades del alumnado novel. *Lenguaje y textos*, 55, 1-12. <https://doi.org/10.4995/lyt.2022.15770>

Ortega, A. & Zarraga, A. (2022). Redes de colaboración para la revitalización de las lenguas indígenas: la experiencia nasa-vasca. / Creating networks and partnerships for indigenous language revitalization: the Nasa-Basque experience. *Voices. Perspectives from the International Year of Indigenous Languages*. Special issue of the *Language Documentation and Conservation Journal*. 105-115 pp. ISBN. 978-1-952460-05-0.

Torralba-Rubinos, C.; García-Azkoaga, I.M. (2022). Una aproximación a las necesidades formativas en traducción a la vista a través de las actitudes y percepciones de los profesionales. In. Romera-Ciria, M. & Camino Bueno-Alastuey M. (coord.). *Didáctica de la lengua, multimodalidad y nuevos entornos de aprendizaje. Análisis y estudios*, 47, 83-102. Barcelona: GRAÓ. ISBN: 978-84-18627-99-6. <https://www.grao.com/es/producto/una-aproximacion-a-las-necesidades-formativas-en-traduccion-a-la-vista-a-traves-de-les-actitudes-y-percepciones-de-los-profesionales-aye47153898>